

Asisko gutuna

2012ko maiatza. 3. printzipioa. Eguneroko bizimodua:

kanporantz, elkartasuna

43. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Asis Sarea pertsonen arteko sare sozial irekia da, eta frantziskotar espiritualitatean txertaturiko printzipioak ezagutu nahiz partekatu nahi ditu eguneroko bizitzan. Hilero gutun bat, bere testu eta otoitzekin, jartzen da elkarrekin, sarean esku hartzen duten pertsonen artean. Hil bakoitzeko azken ostegunean, hainbat herritan, topaketa bat egiten da isiltasun, baitaratze eta otoitzean gutuneko testuak tartekatuz.

Gutuneko gogoetek gai-jira bat, lau bloke edo printzipiotan egituratua, jarraitzen dute. Hil honetan Asis Sareak hirugarren printzipioaz egiten du gogoeta: "Eguneroko bizitza, kanporantz: solidaritatea". Hil honetako gutuneko gogoetaren gai zehatza hau da: geure burua besteen gaitzesle gupidagabe egiteko dugun joera.

Gogoetarako gaia

Ez gaitzetsi

Eguneroko gauza txikieta jokatzeko dugu bizitza. Edo geure bizitza eta bestena hobetzeko balio duten ekintzak burutzen ditugu, edo bestela beroriek kaltetzeko balio dutenak. Geure barneko jarrera ezberdinek alde batera nahiz bestera bultzatzen gaituzte.

Geure burua besteen epaile egiteko dugun joera da dena nahasten duen horietako bat. Besteak direla eta, erraz gaitzesten ditugu haien gauzak. Laguntza eman nahi dugunean ere, geure burua besteen epaile egiten dugu: erraza egiten zaigu besteen arazoak ikustea eta haiei konponbidea aurkitzea, geure nahaste-borrasteetatik ateratzeko ditugun zailtasunez konturatu gabe. Besteak epaitzen ditugu, erantzukizunak eta erruak banatuz, eta geure mugak onartzera etorri gabe. Besteen gaintetik jartzen dugu geure burua, eta laguntza ematean ere geure buruaz ederretsita egiten dugu.

Beti aurki ditzakegu geure lagun hurkoa gaitzesteko arrazoiak. Giza bihotza ezagutzen duen Jesusek ondo

dakizki bertan ditugun ziorik ezkutuenak. Eta esaten digu: "Izan zaitezte errukitsuak. Ez gaitzetsi inor eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko ...". Bihotza altxatzen duten hitz hauek barneraino sartu zitzaizkien haren ikasleei.

Jesusen deia eguneroko bizitzari begira dago. Egunez egun, gupidak tokiz aldatzen gaitu. Ez gara epaile, ez gara gehiago, lagunak gara, lagun diezaiokegu besteari sufrimenduan hari entzunez, haren mugak ulertuz, hari bere duintasunean sostengu emanez.

Badago gure ikuspuntua alda dezakeen galdera bat: Zer egingo nuke nik, dudan tokian egon beharrean, besteari tokian banengo?

Honek guztiak ez du esan nahi parte ez hartzea, gauzak pasiboki onartzea; ez du esan nahi gaizkiaren aurrean anibalentzia onartzea, ez eta mugatasunaren aurrean amore ematea ere. Egiatasuna esan nahi du, gaitzesten ez duen egiatasuna. Gaitzestetik urruntzeak bihotza gupidarako prest jartzen digu.

Ebanjelioko pasartea: Lk 6: 36 - 38. 41 - 42

Izan zaitezte errukitsuak, zuen Aita errukitsua den bezala. «Ez gaitzetsi inor eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu inor eta Jainkoak ere ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta Jainkoak ere barkatuko dizue; eman, eta emango dizue: neurri betea, sakatua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak».

«Nola ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta zeure begiko hagaz ohartzeko ez? Nola esan diezaiokezu senideari: "Adiskide, utzi begian duzun lasto-izpia ateratzen", zuk zeurean duzun haga ikusten ez duzula? Itxurazale hori! Kendu lehenengo zeure begitik haga, eta orduan ikusiko duzu garbi, senidearen begitik lasto-izpia ateratzeko».

Frantziskotar espiritualtasuna

“Neure anaiei Jesu Kristo Jaunarengan kontseilatzen, ohartarazten eta aholkatzen diet, munduan zehar dabilzanean, ez dezatela sesiorik eta hizka-mizkarik izan, ez inor juzga; baizik izan daitezela gozo, baketsu eta eratsu, otzan eta apal, denekin oneski hitz eginez, egoki den bezala. (2Er 3,10-11). Frantziskok ez gaitu munduan gaitzesle gisa nahi, txiki, xume eta azken tokian baizik. Gaitzesten duena bestearen gainetik jartzen da, haren senide izateari uko egiten dio. Frantziskok ez gaitu nahi epaitu eta kondenatzeko, bakea egiteko baizik; ez gaitu nahi inkisidore izateko, senide baketsu baizik. Gaitzesten ez badugu, izan ahalko gara senide eta txiki.

“Eta beste mila aldiz zeure begi aurrean bekatu egingo balu ere, maita ezazu ni neu baino gehiago, horrela Jaunarengana erakar dezazun; eta izan erruki beti horrelakoak” (MiG 11; ik. 1Er 11,5-10). Gaitzetsi ordez, maitatu; kondenatu ordez, gupida izan. Mila bider bekatu egiten badu ere; ez dela ezer lortzen badirudi ere; munduko arrazoi guztiak edukita ere. Gaitzetsi ordez, maitatu. Maitasuna gaitzespena baino indartsuagoa delako, bizi gehiago ematen du, gehiago erakartzen du Aita errukitsuaren bihotza.

“Eta gorde bitez anaia guztiak, ... anaiaren bekatua edo gaizki egina dela-eta asaldatu edo haserretzetik ... , ez baitute osasundunek behar sendagilea, gaixoek baizik (1 Er 5,7-8). Huts egiten duenak medikua behar du, gaitzeslea baino gehiago; eta senideak, salatzailak baino gehiago. Adibidez Frantzisko.

Otoitza

Jesu Kristo, gure Jaun eta senidea:
itxi giltzaz gure bihotzeko atea,
guk inorengatik ez pentsatzeko gaizki,
inor ez gaitzesteko,
suminik inori ez izateko,
susmo eta interpretazio txarrik ez egiteko,
intentzioen santutegi sagaratuan
indarrez ez sartzeko.
Jesus Jauna, senidetarengatik biltzen gaituzun
lokarria:
gorde gure ezpainak josirik,
inoren kontrako maiseatze eta esamesei
bidea ixteko,
guri egin-konfidentziak gordetzeko,

jakinik isilik egotea dela
lehen maitasun-modu zehatza.

Erein gure erraietan
sentiberatasun-zuntzak.
Emaguzu adeitasun-espirtua,
begirunea erakuts diezaiozun elkarri,
zeuri bezala,
Eta aldi berean emaguzu jakinduria,
kortesia hau senide arteko konfiantzarekin
komeni den bezala elkartzeko.
Jesu Kristo Jauna,
emaguzu elkar errespetatzeko grazia.
Amen.

Gutuneko azken hitzak

“Hobeto irakasten duzu gehien ikasi behar duzuna” (Richard Bach).

2012ko ekaineko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate ekaineko erreferentzia guztiak:

1 Mk 11,11-26	7 Mk 12,28b-34	13 Mt 5,17-19	19 Mt 5,43-48	25 Mt 7,1-5
2 Mk 11,27-33	8 Mk 12,35-37	14 Mt 5,20-26	20 Mt 6,1-6.16-18	26 Mt 7,6.12-14
3 Mt 28,16-20	9 Mk 12,38-44	15 Jn 19,31-37	21 Mt 6,7-15	27 Mt 7,15-20
4 Mk 12,1-12	10 Mk 14,12-16.22-26	16 Lk 2,41-51	22 Mt 6,19-23	28 Mt 7,21-29
5 Mk 12,13-17	11 Mt 5,1-12	17 Mk 4,26-34	23 Mt 6,24-34	29 Mt 16,13-19
6 Mk 12,18-27	12 Mt 5,13-16	18 Mt 5,38-42	24 Lk 1,57-66.80	30 Mt 8,5-17

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2012ko maiatza. 3. printzipioa: eguneroko bizitza:

kanporantz, elkartasuna

43. zenbakia

Eguneroko bizitza solidaritatetik bizitzeak eraman behar gaitu bai besteak, eta bai egiten dutena, ez gaitzestera. Gai hau jartzen zaigu aurrean, hil honetako gogoeta eta otoitza egiteko.

Ez gaitzetsi

Eguneroko bizitzari aurre egiteko era asko aldatzen du bizitzeko hartzen dugun jarrerak. Une honetan, zein jarreraz egiten diot aurre egunean egunekoari? Autosufizientziaz, apaltasunez, itxaropenez edo etsipenez...? Eta besteei begiratzen diedanean, nondik egiten dut? Berdinei bezala begiratzen diet? Goragokoei bezala? Beheragokoei bezala? Besteei begiratzeko modua aldatu egiten da neure egoeraren arabera, familiaren, lanaren, adiskideen... arabera?

Neure burua besteak gaitzesten aurkitzen dudanean, pentsatzen al dut zein motibaziok eraman nauen gaitzeste horretara?

Hil honetan zehar, proposatzen dizut saia zaitezela gaitzetsi nahi izan duzun pertsonaz gupida izaten. Zure joera aldatuz joango da pixkanaka, eta zure bihotza libreagoa eta errukiorragoa egingo da. Konponbideak bilatzeko laguntza ez dugu soilik pertsonak juzgatuz ematen, baizik eta bestearen tokian jarriz ere gauza gara hori bera egiteko. Zein egoera bizitu dituzu era horretan azkenaldi honetan? Lagundu dizu senideago sentitzen?

“Izan zaitezte errukitsuak, zuen Aita errukitsua den bezala...”

Ebanjelioko testu honetan ematen zaigu arrastoa, lagun hurkoa Jainkoak gugandik nahi duen bezala tratatzeko. Maitasun denak eta lehenengo maitatu duenak esaten digu, nola maitatu behar ditugun besteak. Gaitzetsi gabe, barkatuz, eman ez. Hau da, bestearen ona bilatuz.

Jesus on eginez bizitu zen, gaitzetsi gabe, bere burua azkeneraino eman ez eta gurutzean ere barkatuz. Jainkoaren seme-alaba gisa bizitzeko dudatan moduan, zer daramate berekin joera hauek? Zerk aldatu beharko luke nire bizitzeko moduan?

Jesus animatzen ari zaigu bestearen tokian jar gaitzen eta geure buruari galdetu: nola nahiko nuke nik besteek ni tratatzea? Bihotzetik erantzungo dugu, egiaziak izanez, horrela guk geuk ere jakin ahalko baitugu behar hainbat, besteei begiko lasto-izpia ateratzen.

Egin otoitz testua erabiliz. Zein da zeure barruko oihartzuna? Seguru asko ez duzu lehen unetik lortuko juzgurik ez egitea, batzuetan zeure burua besteek baino gehiagotzat ez jotzea, lehenengoan barkatzea eta zeure burua besteei libreki ematea.

Jainkoaren laguntzaz eta nork bere erritmoan, joango gara Harekin maitasunaren bidea eginez, lagun hurkoari Hark ematen digun maitasunetik emanaz bizi gaitzen.

“...baizik izan zaitezte gozo, baketsu eta eratsu, otzan eta apal”

San Frantziskok ondo ulertu zituen Jesusek Ebanjelioan esandako hitzak, eta horrela utzi zuen idatzia denok, baldarki bada ere, haren irakaspenak bizitu ditzagun. Soilik geure burua egunetik egunera apalago eginez, izango gara gauza besteengana berdinegana bezala hurbiltzeko, bakean bizi nahi dugun senide gisa.

Goitik behera, autosufizientziaz, harrokeriaz jokatzen duela iruditzen zaizun norbaitekin aurkitzen zarenean, zein da zure erreakzioa? Norekin dituzu lanik handienak, gaitzetsi gabe bizitzeko? Saia zaitez hil honetan inor ez gaitzesten, haren tokian jartzen eta ahal duzun neurrian bihotz-gupidaz begiratzen. Nola laguntzen diezu bizitzan gertuko dituzunei, oker dabilzala uste duzunean? Nork ematen dizkizu lanik handienak, oker dabilenari bigarren aukera emateko?

“Jesu Kristo Jauna, emaguzu elkar errespetatzeko grazia”

Egizu otoitz egunero testuak erabiliz, eta eska iezaiozu bizirik dugun Jesusi, pazko-aldi honetan eman diezazula bere Espirituaren argia zuk besteak, haien zu tratatzea nahi zenukeen bezala, trata ditzazun. Eska iezaiozu, orobat, eraman zaitzala egunez egun gupidaren bidetik, egunean egun bihotz errukitsuagoa zuri eman ez. Esker iezaiozu Jaunari bidean jartzen dizkizun pertsonengatik, eta besteengana irekia, eta besteen bizitza hobetu nahian, bizitzen irakasten dizutenengatik.